



**ARANTZAKO UDALA**

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7  
31790 ARANTZA (Nafarroa)  
☎ 948 634 005  
udala@arantza.eus  
www.arantza.eus

---

## OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

---

**Organoa:** Udalbatza  
**Deialdia:** Lehenengoa  
**Bilera mota:** Arrunta  
**Eguna:** 2022.06.23  
**Ordua:** 18:00  
**Tokia:** Herriko Etxeko areto nagusia

**Bertaratuak:**

- Dabid Iturria Almandoz jn., EH Bildu.
- Leire Mitxelena Gamio and., EH Bildu.
- Markel Jorajuria Elizondo jn., EH Bildu.
- Eneko Sarrias Zoco jn., EH Bildu.
- Imanol Lukanbio Larretxea jn., EH Bildu.

**Bertaratu ez direnak:**

- Beñat Mitxelena Danboriena jn., EH Bildu.
- Joseba Pikabea Iribarren jn., EH Bildu.

**Idazkaria:** Nagore Madariaga Iriarte

### AZTERGAIK:

#### 1. AURREKO AKTAREN ONESPENA

2022/05/25ko akta aho batez onartu da.

#### 2. LURRALDEKO ELIKADURA ESTRATEGIA GARATZEKO DINAMIZATZAILEA KONTRATATZEKO ELKARLAN HITZARMENEO JARRAIPEN ETA BATZORDE ERABAKITZAILEAN ARITUKO DIREN ORDEZKARIEN IZENDAPENA.

Alkateak eta idazkariak azaldu dute aitzineko osoko bilkuran adostu zela hurrengo bileran erabakitzea nortzuk izanen ziren Lurraldeko Elikadura Estrategia garatzeko dinamizatzailea kontratatzeko elkarlan hitzarmeneko jarraipen eta batzorde erabakitzailean arituko diren ordezkari.

Osoko bilkurak, informazioa adituta, AHO BATEZ ERABAKI DU:

1.- Dabid Iturria Almandoz izendatzea jarraipen eta batzorde erabakitzailean arituko den Arantzako Udalaren ordezkari.

2.- Akordio hau CEDERNA-GARALUR elkarteari jakinaraztea bere ezaguera eta ondorioetarako.

### **3. LGTBI+ HARROTASUNAREN NAZIOARTEKO EGUNERAKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA.**

Ekainaren 28an kaleak kolorez eta aldarrikapenez janzten dira LGTBI+ kolektiboaren borroka nabarmendu eta aldarrikatzeko. 1969ko ekainaren 28an Stonewallen (New York) izandako istiluek LGTBI+ kolektiboarentzat inflexio-puntu bat markatu zuten, egun hori erakunde politiko, polizial eta erlijiosoek lesbianen, gayen, bisexualen, transexualen eta intersexualen aurka ezarritako errepresioari aurka egiteko mugarri izan baitzen.

Hainbat urtetako aldarrikapenaren eta borrokaren emaitza gisa, LGTBI+ kolektiboa geroz eta ikusgaiagoa da. Eskubideen arloko aurrerapenei dagokienez, ukaezina da gure lurraldean eta beste hainbat herrialdetan aurrerapauso nabarmenak eman direla, hala nola, sexu bereko bikoteen ezkontzak legeztatzea, adoptatzeko eskubidea eta 8/2017 Foru Legea (ekainaren 18koa, LGTBI+ Pertsonen Berdintasun Sozialari Buruzkoa).

Egun, gizartean LGTBI+ kolektiboarekiko onarpen soziala hedatua dagoen arren, kolektiboaren aurkako diskriminazio egoerak ez dira bukatu. Oraindik ere badira mundu guztian eta baita Nafarroan ere homofobiaren, lesbofobiaren eta transfobiaren ondorioz gertatzen diren eraso eta diskriminazioak.

Ekainaren 28 honetan Bortzirietako Udalok argi dugu oraindik ere asko dagoela borrokatzeko LGTBI+ kolektiboaren eskubideen alde; arrazoiak soberan daudela lesbiana, homosexual, transexual, bisexual zein intersexualen herritar eskubideak aldarrikatzen jarraitzeko gure bailaran zein lantokietan, ikastetxeetan, familia eta lagunartean, aisialdi eta jai eremuan ... Bortzirietako Udalok aniztasun afektibo sexualaren borroka egunerokoa eta herritar guztiona dela ulertzen dugu, horregatik honakoa adosten dugu:

1.- Udalok lan eginen dugu Bortzirietan LGTBI+ pertsonen ikusgaitasuna izatearen alde; kanpainak babestu eta burutuko ditugu, sexu-joera, genero-adierazpen eta sexu- eta genero-identitate, harreman afektibo-sexual eta familiakoan arloan aniztasunak duen balio positiboa sustatzeko.

2.- Babesa ematen diogu, LGTBI+ pertsonen berdintasun sozial eta erabatekoa lortze aldera, oroimen-datetan ekitaldiak eta jarduerak egiteari, horiek normalizazio-bitarteko eta ikusgaitasunerako bide baitira.

3.- Bortzirietako Berdintasun Zerbitzuak kanpainak sustatuko ditu, LGTBI+ kolektiboko kideek sexu-joera, genero-adierazpena eta sexu- eta genero-identitatea direla-eta jasaten duten diskriminazio anitza desagerrarazten laguntzeko.

4.- Bortzirietako Udalok LGTBI+ kolektiboaren aurka gerta daitekeen edozein eraso gaitzesten dugula eta Bortzirietan horrelako jarrerarik onartzen ez dugula argi utzi nahi dugu.

#### **4. 2022KO LAGUNTZAK.**

Alkateak 2022ko udal aurrekontu orokorrean partikularrei edo erakundeei laguntza emateko 1.000,00 €-ko partida bat egokitu zela aipatu du. Horri dagokionez, donazio edo laguntza horiek oraindik bideratzekoak direnez, bi sare/erakunde proposatu ditu: Irungo Harrera Sarea eta Arantzako Herri Kirol Taldea.

Arantzako Herri Kirol Taldeari dagokionez, alkateak azaldu du bertako gizonezko eta emakumezkoek eraturako herri kirol talde paritario bat dela. Talde honen helburu nagusia Arantzako herri kirolak sustatzea eta Nafarroa mailan eginen den herrien arteko txapelketan parte hartzea da. Halaber, taldean gizonezko zein emakumezkoek parte hartzen dute, bi sexuen arteko berdintasuna izanez irizpide nagusietako bat. Udalak berriki jakin du kirol hauetan aritzeak zenbait gastu ekarri dizkiola taldeari, hala nola, herri kirol materiala eta entrenatzeko behar duten egurra. Horregatik guztiagatik, herriko frontoia entrenatzeko erabiltzea uzteaz gain, ekarpen ekonomiko bat egitea ere beharrezkoa ikusten du, sustatu eta bultzatzen dituzten alderdi nagusiak bat datoz eta Udalaren funtsezko oinarriekin, bertzeak bertze, euskal kultura, berdintasuna eta elkarlana.

Irungo Harrera Sareari dagokionez, alkateak azaldu du 100 pertsonatik gorako sarea dela, eta modu solidarioan hasi zirela antolatzen 2018ko udan; Irungo tren-geltokian abandonatuta eta eskubiderik gabe zeuden migratzaileen egoera dela eta. Halaber, Irun ezinbertzeko mugapasa da aukera berriak bilatzeko beren jatorrizko lekuetatik desplazatuta dauden pertsonentzat. Horregatik, Erakunde publikoek ez lukete bertze alde batera begiratu beharko migratzera behartuta izan diren pertsonak dituzten zailtasunen aitzinean, eta dagokien erantzukizuna hartu beharko lukete. Alkateak azaldu du Irungo Harrera Sarearen eskuhartze nagusiak lantaldeak antolatzea, elikagaiak, arropa, garbitasuna, osasun-laguntza eta abar eskaintzea dela. Bi urte pasata, Irunen harrera-dispositibo bat egotea lortu dute, baina murrizketa eta arau opaku aunitzekin. Horregatik guztiagatik, beharrezkoa ikusten du Arantzako Udalak laguntza bat ematea talde honi beraien helburuak lortu ahal izan ditzaten, pertsona guztiek harrera duina izateko eskubidea dute eta.

Idazkariak azaldu du, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean ez dagoela aurreikusita toki entitateek donazioak egitea, bai ordea dirulaguntzak ematea. Horregatik, laguntzak erakunde, talde, pertsona edo entitate bati zuzenean eman nahi izanez gero Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean xedaturikoa jarraitu beharra da. Halaber, dirulaguntzak zuzenean eman ahal izateko, helburu zehatz batzuk betez, hitzarmen bidez egin beharko litzatekela jakitera eman du idazkariak.

Alkateak eta udalkideek helburuak dagoeneko azaldu direla uste dute eta, eman nahi diren kopuruak txikiak direla ikusirik, ez dute beharrezkoa ikusten hitzarmenik egitea.

Osoko bilkurak, informazioa adituta, AHO BATEZ ERABAKI DU:

- 1.- Arantzako Herri Kirol Taldeari 500,00 €-ko laguntza ematea.
- 2.- Irungo Harrera Sareari 500,00 €-ko laguntza ematea.
- 3.- Akordio hau onuradunei jakinaraztea, euren ezaguera eta ondorioetarako.

## **5. KLIMA ETA ENERGIA JASANGARRIRAKO PLANA (KEJEP) ONARTZEA.**

Alkateak azaldu du Arantzako Udalak bat egin zuela Alkatetza Itunaren ekimenarekin, udalbatzak hala erabakita 2020ko urriaren 1ean egindako osoko bilkuran. Horrela bada, finantzatutako ekimen honen bidez, tokiko gobernuek berotegi-efektuko gasak murrizteko helburuekin bat egiten ahal dute, eta klima-aldaketa arintzeko ikuspegi komuna hartu, baita pobrezia energetikoa ere. Konpromisoa honetan datza:

- 1) Berotegi-efektuko gasen emisioak % 40 gutxienez murriztea hemendik 2030era, bereziki energia-eraginkortasuna hobetuz eta energia-iturri berriztagarriak gehiago erabiliz.
- 2) Erresilientzia handitzea, klima-aldaketaren ondorioetara egokituz.

Klima eta Energia Jasangarrirako Plana (KEJEP) bertze udalerrri batzuekin batera egiteko, udal honek Lankidetzta Hitzarmena sinatu zuen Klima eta Energia Jasangarriaren aldeko Ekintza Plan Bateratua egiteko.

Hitzarmen honetan hartutako konpromisoen arabera, NASUVINSA-Lursareak lan teknikoak eta herritarren parte-hartzea zuzendu ditu, Udalekin eta Tokiko Ekintza Taldeekin koordinatuta.

Emaitzak sintetikoki biltzen ditu: diagnostiko bat, ekintza-plan bat eta monitorizazio eta ebaluazio sistema bat. Gainera, honako hauei buruzko eranskinak ditu: finantzaketa-iturriak, 2005eko kontsumoen eta isurien inbentarioa, 2019ko kontsumoen eta isurien inbentarioa, 2019ko udal-kontsumoen txostena, kalteberatasun eta arrisku fitxak eta bertzelako dokumentazio teknikoa.

Ekintza-planak 8 jarduera-ildo ditu:

1. Ekintza klimatikoa Administrazioetik
2. Eraginkortasun energetikoa eta energia berriztagarria
3. Mugikortasun iraunkorra eta zero emisio
4. Klima-aldaketari egokitutako hirigintza
5. Hondakinak prebenitzea eta kudeatzea eta ekonomia zirkularra bultzatzea
6. Ingurune naturala, nekazaritza, abeltzaintza eta basogintza
7. Uraren kudeaketa integrala
8. Klima-aldaketarekin lotutako gaixotasunak eta osasunaren gaineko ondorioak prebenitzea

Jarduera-ildo bakoitzak ekintza batzuk eta ekintza bakoitzaren deskripzio-fitxa bat biltzen ditu.

Udal honentzat aukera bat da plan zehatz hau izatea, Nafarroako Gobernuaren LIFE-IP NAdapta-CC proiektuak % 100ean finantzatua.

Halaber, alkateak azpimarratu du Arantzaren kasuan ez direla ekintza-planean xedaturiko jarduera ildoak behar bezala bete. Izan ere, Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak 2021ean Arantzako udalerrian zegoen azkeneko zentral hidroelektrikoa itxiarazi du, presa eraisteko zainean egonda. Horregatik, alkateak uste du energia berriztagarriak bultzatzea denez ekintza-planaren helburuetako bat, horrelako egoerek ez dutela planean xedaturiko helburuak behar bezala betetzen.

Dena dela, udalbatza jakitun da Arantzako Udalak Klima eta Energia Jasangarrirako Plana (KEJEP) onartu beharra duela gaur udalbatzak. Plan hau, hain zuzen ere, datozen urteetan ezarri beharreko udal-ekintza klimatikorako ibilbide-orria ezartzen du.

Osoko bilkurak, informazioa adituta, AHO BATEZ ERABAKI DU:

- 1.- Klima eta Energia Jasangarrirako Plana (KEJEP) onartzea, planan xedatutakoarekin bat datorrela adieraziz, baina lehen aipatutako kexa azpimarratuz.
- 2.- Akordio hau NASUVINSAr jakinaraztea, bere ezaguera eta ondorioetarako.

## 6. ALKATEAREN EBAZPENAK.

57/2022 eta 78/2022 arteko ebazpenak berretsi egiten dira.

## 7. ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez dira egiten.

Bertze aztergairik izan gabe, 19:00 direnean, alkateak bilera bukatutzat eman du, eta nik, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.

ALKATEA,   
Dabid Iturria Almandoz

IDAZKARIA,  
  
Nagore Madariaga Iriarte

